

baketik 2022

EKINTZEN LABURPENA

ARLO OROKORRA

- 2022an, Baketik-ek, Euskal Herrian bakearen alde lan egin duten elkarteetako bat izanik, Bakearen aldeko Nazioarteko Institutu Katalanaren (ICIP) [saria](#) jaso zuen, euskal gizarte zibilak bakearen alde egindako lana aitortzen duena. Saria emateko ekitaldia Kataluniako Parlamentuan egin zen irailean, eta aukera eman zigun gure inguruan bakearen eraikuntzan egondako arrakasta eta erronkak ikusarazteko, [bideo honetan](#) bilduta. Aitorpen honek egunez egun bizikidetzat sustatzeko eta gatazkaren eta indarkeriaren hamarkadetako ondorioei erantzuteko lanean jarraitzera animatzen gaitu.



- Aitortza honekin batera, 2022. urtea izan da gure lan-arlo gehienak sendotzeko urtea: Izeba Proiektua mentoretza sozialeko programa indartu eta bere eragina zabaldu da, antzerki-forumean antzezlan berriak egin dira eta 2030 Agenda bezalako esparruetan prestakuntza berriak antolatu dira, besteak beste.
- Erakunde gehiagorekin sarean lan egitearen aldeko apustutik, nazioarte mailan lan batzuk ere bultzatu ditugu eta lurraldean funtsezkoak diren erakundeekin lankidetzat berriak sortu ditugu, [Gizaldea](#) edo [Mentoretza Sozialeko Estatu Koordinakundearekin](#) adibidez, gure lanerako funtsezko sare bihurtzen direnak.
- Beti bezala, lan hau guztia eskaini nahi diegu eta eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen horiek guztiak sustatzen jarraitzea bermatzen duten pertsonari, hala nola boluntario moduan Izeba proiektuan dabilzanari, Gipuzkoako elkarbizitzarako mahaietako partaideei edo indarkeriaren biktimen errealitatea aurkezteko lana sustatzen dutenei. Horiei guztiei, gure aitorpenik zintzoena.

- Baketik-ek bake- eta bizikidetzaproiektuak lantzen jarraitu du Gipuzkoako 9 udalerritan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako "Bizikidetzaz Lantzen" programaren barruan eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ordezkaritza politikoen arteko eta herritarren arteko elkarriketarako gune diskretuak errazteaz gain, Baketik-ek hainbat jarduera publiko antolatzen lagundu du udalerritako horietako batzuetan memoriaren eta elkarbizitzaren inguruan.
- Soroluzen, bizikidetzari eta oroimenari buruzko urteko jardunaldien baitan, bi jarduera antolatu ziren: "Bi arnas" dokumentalaren proiektioa urriaren 25ean, eta Ander Gillenearen "Gure historiaren pasarteak" argazki-erakusketa azaroaren 2tik 11ra, argazkilariaren aurkezpen batekin osatua azaroaren 8an.
- Lasarte-Orian, azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatu zen, Bizikidetzako Mahaiak eta Herritarren Foroak elkarrekin antolatutako ekitaldi batekin. Ekitaldi honetan, adostutako testu bat irakurri ondoren, lore-eskaintza egin zitzaizen biktimei, musikarekin lagunduta.
- Andoainen bi jarduera antolatu ziren "Memoria eraikitzen" jardunaldien baitan: azaroaren 23an "Memoria hurbilaren transmisioa belaunaldi gazteei: hutsuneak eta erronkak" mahai-ingurua egin zen Iker Uson eta Ainhoa Gomezekin. Abenduaren 1ean "Reconciliación" dokumentala proiektatu zen (Fermin Aio, 2014)
- Beasainen herritarrei irekitako bi prestakuntza-saio egin ziren: batetik, martxoaren 7an Laura Pego legegariarekin "Preso dauden pertsonen egoera juridikoa ulertzeko gakoak" izeneko hitzaldia antolatu zen. Bestalde, "Giza eskubideen markoa motibazio politikoko gatazka lantzeko" izenburupean prestakuntza egin zen hiru saiotan.
- Bakearen aldeko Ikerketaren Espainiako Elkarteak (AIPAZ), Baketik-ek eta Foro Sozial Iraunkorrak "Bakea eraiki. Erronkak eta aukerak Euskal Herriarentzat" mahai-ingurua antolatu zuten ([ikus bideoa](#)), motibazio politikoko indarkeriaren 6 biktimekin partaidetzarekin. Baketik-ekin batera mahai-ingurua izan ziren Rosa Lluch, Maria Jauregi eta Alberto Muñagorri, ETAko biktimak, Idoia Zabalza, torturaren biktima eta Axun Lasa, GALEko biktima eta torturaren biktima, euren errealitatea, bizi izan zituzten prozesuak eta oraindik egiteko dauden erronkak aurkezten.
- Nazioartean, Baketik-ek aktiboki parte hartu zuen Kolonbiarekin egindako proiektu batean, AIPAZek gidatuta, eta aholkularitza-lan bat bultzatu zuen "Bake hiri eta lurraldeen printzipioa eta lurralde- eta hiri-indarkeriari buruzko elkarriketa globalen prozesua sustatzeko". Bogota hiriko elkarte eta arduradun politikoekin egindako elkarriketak eta lana aberasgarriak izan ziren gatazkaren ondorengo bizikidetzaz lanean metodologiak partekatzeko udal mailan.
- Baketik-eko Maialen Lizarralde Gune Irekiak elkarteak martxoan antolatutako "Emakumeak frankismoaren aurkako borrokan Euskal Herrian" topaketan parte hartu zuen erraztatzaile bezala, memoria eraikitzen ari diren emakumeen ahotsak entzuteko eta sustatzeko gunea izan zena.



- Ekainaren 5etik 9ra [Munduko Biktimologia Elkartearen 17. Nazioarteko Sinposioa](#) egin zen Donostian. Baketik-ek, Bakeola eta Berbarirekin batera, tailer batean parte hartu zuen. Taileraren izenburua "Tokiko elkarriketarako espazioak bakearen eta bizikidetzaren eraikuntzan" izan zen, eta Aintzane Gámizek, Maider Maraňak eta Maialen Lizarralde (Baketik), Aitziber Blancok (Berbari) eta Maider Martiarenak (Bakeola) udal prozesuetan izandako esperientziak kontatu zituzten.

- 2022 urte estrategikoa izan da berriro Izeba Proiekturako, Baketik-en eta GFaren artean sinatutako hitzarmena indartu egin baita. Horri esker, harremanen kopurua handitu egin da, eta Izeba Proiektuan haur eta nerabe gehiagori parte hartzeko aukera eman zaie. Talde teknikoa indartu egin da, halaber, koordinazio eta jarraipen lanetan teknikari berri bat sartuz. Horrek guztiak programaren azterketa metodologikoa egiteko aukera eman du, hobekuntza nabarmenak ezarrita, hala nola, boluntarioentzako hasierako prestakuntza berria, GFarekin batera egindako programaren funtzionamendurako protokolo berria edo Mentoretza Sozialeko Koordinakundearekin sarean egindako lana.

- Nabarmendu nahi dugu 2022an Izeba Proiektuak Estatuko Mentoretza Sozialeko Koordinakundeak emandako mentoretza sozialeko proiektuen kalitate-zigilua lortu zuela. Aitortza garrantzitsua izan da Baketik-eko taldearentzat, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Nerabeen Babeserako Zerbitzuarentzat eta programa osatzen duten familia boluntario eta profesional guztientzat.



El proyecto **Izeba** ha sido acreditado por el Sello MC de la mentoría de calidad con vigencia hasta abril de 2025.

- Urtean zehar 28 harreman berri hasi ziren adingabeen eta boluntarioen artean (2021. urtearekin alderatuta, %65 gehiago). Horrela, urtea Izeba Proiektuaren barruan 69 harreman aktiborekin amaitu dugu. Iloba Proiektuko tutelatu izandako gazteekin, guztira, 198 harreman ditugu.

- Gazteen errealitatea ikusarazteko, 2022an "Gainditze-istorioak" kanpaina jarri genuen martxan. Erreferenterik gabe migratzen duten adingabeen eta gazteen egoeraz sentsibilizatzea du helburu kanpainak, gure lurraldean bizi-proiektu duina eta autonomoa egiten saiatzen direnak. Kanpaina 10 astean sare sozialean aurkeztu den komiki batetik abiatzen da. Biñeta batzuen bidez, Donostiako bi gaztek, bata Donostian jaioa eta bestea Marokon jaioa, bizi dituzten egoera eta zailtasunak deskribatzen dira, bien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak azpimarratuz. Komikia Baketik-en [blogean ikus](#) dezakezu.



- 2022 sozializazio eta zientzia-dibulgazioz jositako urtea ere izan da. Hauek dira ekintza esanguratsuenak:

- "Izeba Solasaldiak" dibulgazio saioa. Programaren boluntarioei laguntzeko helburua du, boluntarioen prestakuntza beharrei edo interesei erantzuteko. Lehen topaketa horretan, gizartean bazterturik dauden gazteen laneratzea aztertu zen. Hizlari bezala aritu ziren Estibaliz Beraza, Batzen programaren arduraduna eta Zabalduz Kooperatibako kidea, eta Aritz Martiarena, Txiperren arduraduna, Sarea Fundazioaren kualifikazio baxuko gazteak laneratzeko programa.

- Sentsibilizazio-kanpaina Aizkorpe eta Goierriko eskualdeetan. Informazio-saio bat antolatu zen Seguran, eta 30 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte: herritarrak, arduradun politikoak, sektoreko profesionalak, Izebako familiak eta gazteak, eta beste gazte tutelatu eta tutelatu ohi batzuk. Era berean, hainbat agerraldi egin ziren prentsan, irrastian eta telebistan.

- Gizarte Mentoretzaren Estatuko I. Biltzarra (Iruña). Izeba Proiektuak parte hartu zuen egoera zaurgarrian dauden gazte eta nerabe eta mentoretzari buruzko mahai-inguruan ([ikus bideoa](#)). Gainera, mentoreei eskaintako saioan, Izeba batek eta bere llobak (adinez nagusia) beren esperientzia partekatu zuten.

- "Babesik gabeko adingabeak. Harrerarako kultura sortzen" jardunaldia Andaluziako Juntarekin batera antolatu zuen Crecer con Futuro elkarteak. Izeba Proiektuak "Beste lurralde batzuetan babesik gabe dauden adingabeentzako familia-alternatibak" mahai-inguruan parte hartu zuen ([ikus bideoa](#)).

- "European Mentoring Summit 2022" izeneko Mentoretzaren Europako IV. Biltzarra (Herbehereak) egin zen, Ebidentzian oinarritutako Mentoretzako Europako Zentroak antolatua. Izeba proiektuak "[Izeba Project: from formal mentoring to natural bond. Mentoring processes during and after the tutelage of the institution in the Basque Country - Gipuzkoa](#)" izeneko tailerra aurkeztu zuen.

- Nafarroan bizi diren gazte migratzaileei buruzko Ikaskuntza Laborategia. Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiak gonbidatuta joan ginen ekitaldi honetara. Gazte migratzaileen egoera aztertzeko lanean, Izeba Proiektua eta bere emaitzak praktika egokitzat aurkeztu ziren.

- Urtero bezala, maiatzean Izeba Proiektuko Parte-hartzaileen Topaketa egin zen, programako familia boluntario, haur eta nerabe guztien arteko harremanetarako funtsezko jardunaldia. 2022an, Pagoetako parke naturalean elkartu ginen, eta jolas-jarduerak eta talde-laneko saio bat egin ziren. 35 boluntariok eta Izeba familiak hartu zuten parte, adin desberdinetako ilobekin batera.



- Hedabideek ere programa horren berri eman dute hainbat aldiz 2022an, hala nola EiTbren Biba Zuek telebista-programa ([ikus bideoa](#)).
- 2022 honetan, Mentoretza Sozialeko Estatuko Koordinakundearen Batzordean sartu da Baketik, gure fundazioak lan-eremu horren alde egindako apustu sendoaren beste adibide gisa.

- Baketik-ek, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, 2030 Agenda hobeto ezagutzeko aukera eman die hezkuntza- eta gizarte-munduko eragileei, besteak beste. Horretarako, 2030 Agenda zer den eta Garapen Iraunkorreko Helburuak zer diren aztertu dugu. Errealitate bakoitzera egokitua, udal edo enpresa arloko 75 ordezkari, gizarte erakundeetako 40 profesional eta boluntariok eta hainbat ikastetxetako 565 ikaslek 2030 Agendari buruzko prestakuntza hori egin zuten Baketikekin 2022an.
- Baketik Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) lankidetzan aritu zen bigarren urtez jarraian Etikasi proiektuan. Proiektu horren helburua da gazteen artean giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna sustatzea, hezkuntza-bizipenen bidez. Baketik-eko bideratzaileek trebatzaile gisa parte hartu zuten prestakuntza-saio batean, non memoria eta giza eskubideak aztertu eta sakondu ziren. Ondoren, Ipar Irlandara joan zen gazte taldearekin uztailaren 3tik 7ra, eta Pasaiara eta Errenteriarra, urriaren 21etik 23ra. Bukatzeko, azaroaren 12an egin zen ebaluazio-saio batekin amaitu zen.



- Online ikastaroei dagokienez, martxoan "Komunikazioa eta bitartekaritza gatazken lantze etikorako" ikastaroaren 3. edizioa egin zen, eta 50 pertsonak parte hartu zuten. Maiatzean, ikastaro beraren gaztelaniazko 1. edizioa jarri zen abian, eta 45 pertsonak parte hartu zuten.
- Maiatzean, Askoraren inizatibatik eta balio berritzaileak emateko bere kezkatik abiatuta, gatazkei aurre egiteko tresna sortzaileei eta indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko ikastaroa eman zen Donostiako jantokiak zaintzen dituzten langileentzat.
- Ekainean eta uztailan, "Gatazken lantze etikoa/Komunikazio eraginkorra eta sormen-tresnak" trebakuntza egin zen, Gizaldek egindako eskaerari eta haren beharrei erantzuteko. Ikastaro horren helburu nagusia honako hauek izan ziren: tresna praktikoak eskuratzea, gatazkek eta horien kudeaketa ezagutzea eta komunikazio eraginkorren eta lan sistemikoaren ahalmena lantzea, gure eguneroko egoeretatik abiatuta konponbide eta baliabide eraginkorrak bilatzeko.
- Azaroan, Eskubidez elkartearen eskutik, Baketik-ek "Indarkeria Euskadin: zinema, literatura eta antzerkia" mahai-ingurua moderatu zuen, zeinak hizlari izan zituen Mikel Ayerbe, gaia literaturatik landu zuena, Roncesvalles Labiano, zinea ardatz hartu zuena, eta María San Miguel, antzerkiaren errealitatea aztertu zuena.

HEZKUNTZA ARLOA

- 2022an sortu zen “Fatiaren ahotsa” izeneko antzerki-forum proiektua, Mundubat GKEarekin batera sortua, okupatutako Sahararen inguruan sentsibilizatzeko ekintzen programa bati lotuta. Errefuxiatu-eremuetako emakumeei egindako elkarrizketetan oinarrituta egin zen lanaren sorkuntza-prozesua. Udaberrian hainbat saio egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.
- “Atzera bueltarik gabe” antzeulanaren saio pilotua egin zen Errenterian, HHEn ikasten duten pertsona helduei zuzendua, biztanleria-sektore horren berariazko beharrei erantzuten diena eta zirkulazio-istripuen arriskuaz duten pertzepzioari erantzuten diona.
- Gainera, azaroan, Baketik-ek hizlari gisa parte hartu zuen “Kolektiborik zaurgarrientzako Bide Segurtasunerako eredu berri bat Euskadin” jardunaldian. Bertan, gizarte-eraldaketatik prebentzioa hobetzeko metodologia partekatu zen.
- Kultura Eskolako katalogoan parte hartzen dugu, non arteak eta kultura-ondarea ezagutzeko nerabeei zuzendutako ekimenak biltzen eta zabaltzen diren. “En tu piel”/ “Zure azalean” lanaren bidez, aurten Arrasaten izan gara, eta 12 eta 16 urte bitarteko gazteen artean kultura-eta arte-jarduera bultzatzeko programaren helburuari lagundu diogu.
- GUKA lan-proposamenaren helburua Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskaerari erantzutea izan zen. Planteamendu integral hau eskaini zen, eta horrek eskola-komunitate osoa (ikasleak, irakasleak eta familiak) inplikatu zuen diagnostiko-, prestakuntza-, laguntza- eta aholkularitza-prozesu batean, azken helburura iristeko; kasu honetan, Maeztuko Bizikidetzarako Behatokia sortzea.



- Eskola-jazarpena, aniztasuna, adiskidetzeta eta bizikidetzeta, eta bide-hezkuntza lantzeko antzerki-forumekin lanean jarraitu zen erakunde ezberdinekin lankidetzan: Nafarroako Antzokien Sarea, Nafarroako Gobernuko Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Saila. Herri ugarian egin ziren antzerki-forum saioak: Azagra, Beriain, Corella, Etxarri, Irurtzun, Ribaforada, Uhartea, Zangoza, Noain, Viana, Cintruénigo, Puente la Reina, Marcilla, Iruña, Zizur, Mendavia, Bera, Aoiz, Irun, Deba, Donostia, Bilbao, Eibar, Ermua, Markina, Hernani, Asteasu, Orío eta Urnieta.
- Azarotik abendura bitartean Jauzi Handia proiektua egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritzaren programa, unibertsitateko gazteen kultura demokratikoaren sakontzeko helburuarekin. Baketik-ek lan/partaidetza programa bultzatu zuen, hainbat dinamikarekin eta Bakeola EDE Fundazioarekin batera, UPV/EHUrekin koordinatuta. Baketik-en lanaren helburua zen gazteek askatasunez eta zentsurarik gabe adierazteko aukera izatea zenbait kontzepturen inguruan, hala nola politika, demokrazia, oroimena...
- Bizikidetzeta hobetzeko lanean jarraitzeko, aurten ere Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu gara Adi-adian programan, eta biktimei lagundu diegu unibertsitateko, batxilergoko eta DBHko ikasleen aurrean testigantza ematen. Guztira, aurrez aurreko 15 saio egin dira, eta 1.100 parte-hartzaile baino gehiago izan dira 2022an. Gainera, aurten hainbat elkarrizketa egin zaizkie biktimei, programan parte hartzen laguntzeko, etorkizunetako saioetan testigantza emateko. Programa honek eta biktimekin izandako elkarrizketek bizikidetzaren alde lan egiteko beharrezkoa iruditzen zaigun harremana bultzatzen dute, ikuspuntu berriak emanez eta biktimen lehen eskuko beharrei erantzunez.

ZINE ZERBITZUA

- 2022an, Baketik-ek Eskubidez Elkartearen (Giza Eskubideen eta Bakearen Hezkuntza Erakundearen Foroan) parte hartzeko erronka bere gain hartzea erabaki zuen bertako Zuzendaritza Batzordeko kide bihurtuz, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan erakunde guztien ahaleginak bateratzeko asmoz.

-
- Baketik-ek [hamar film berri](#) gehitu dizkio bere bideotekako katalogoari, geure buruekin eta besteekin hobeto bizi eta hezteko, eta bere gida didaktikoak prestatu ditu. Zerbitzu horren pelikulak Baketik-en egoitzan daude eskuragarri, pertsonai, taldeei edo ikastetxeei doan maileguan emateko. Hauek dira gehitutako pelikulak: Belfast (Kenneth Branagh, 2021), Maixabel (Iciar Bollaín, 2021), El pan de la guerra (Nora Twomey, 2017), Nomadland (Chloe Zhao, 2020), Siempre juntos (Gustavo Pizzi, 2018), Nebraska (Alexander Payne, 2013), Nora (Lara Izagirre, 2020), El silencio de otros (Almudena Carracedo, Robert Bahar, 2018), Una cuestión de género (Mimi Leder, 2018), Mala hierba (Kheiron, 2018).

- Aurten, zinemari eta hezkuntzari buruzko hausnarketa argitaratu zen “[PAPELES DE CINEASTAS Nº2. EDUCACIÓN PÚBLICA Y CINE: Pensar en la esencia](#)!” publikazioan, Zinemagileen Batasunak argitaratua. Bertan, zinea eta ikus-entzunezko hizkuntzak eskolan modu sistematikoan eta zeharka txertatzeko beharra aztertzen dugu.

EZAGUTZA SORTUZ

-
- 2030 Agendaren gero eta presentzia handiagoari erantzuteko (askotan, gertutik ezagutu gabe hitz egiten baita gaiari buruz), Baketik-ek gogoeta-testuak sortu ditu gai hauei buruz: [2030 Agenda esparru erabilgarria den](#), [giza eskubideekin duen lotura](#), [ingurumen-gatazkekiko lotura](#) edo [boluntarioek nazioarteko tresna hori betearazteko izan dezaketen rola](#). Gainera, hizlari gisa parte hartu genuen EDE Fundazioak Bilbon azaroan antolatutako “GJHak zuk uste baino hurbilago” [jardunaldian](#). Online [ikusi](#) daiteke. Komunikabideetan, [Ekosfera](#) irratsaioan parte hartu genuen, eta 2030 Agenda sakon aztertu genuen.

- Baketik-etik, halaber, gogoeta bultzatu genuen esparru akademiko eta profesionalean, hala nola memoria-prozesuetako gaitetan. Aurten, besteak beste, “Gernika 85 urte. Memoria, legegintza eta historiografia” jardunaldietan parte hartu genuen hizlari gisa apirilean, “Oroimen lekuen inguruko eztabaida” izeneko hitzaldiarekin.

- Adierazpen Askatasunari buruzko Giza Eskubideen II. Nazioarteko Biltzarrean, “Artea eta sormena gogoeta egiteko; bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura berria” gaia aurkeztu genuen.

- Nazioartean, Oroimen eta Turismo Lekuen Nazioarteko I. Mintegian parte hartu genuen. Bertan, hainbat ikuspegi landu ziren eskubideak urratu ziren lekuetara egindako bisitei buruz. Bakearen aldeko Museoen Nazioarteko Sarearen webinarrean ere izan ginen, “Peace or War Heritage?” gaia landu zuena.

- Kultura-eskubideen arloan, 2022an Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan aritu ginen, gaiari buruzko [jardunaldi batean](#) parte hartuz eta “[Eskubide kulturalen erronkak ingurune digitaletan](#)” artikulua erekin.

- Maiatzean, gure lankide Jenny Pearce-en partaidetzarekin, “Zer da elkarrizketaren kultura?” hitzaldia antolatu genuen Hondarribian. Bertan, entzutea eta elkarrizketa sustatzeko ezinbestekoak diren tresnei buruzko hurbilketak aztertu genituen.

- Urteari amaiera emateko, Gasteizko Udalarekin batera, abenduaren 15ean, [Desgaitasuna duten Pertsonen Hirirako Eskubidea](#) izeneko jardunaldia antolatu genuen. Jardunaldi honetan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen arloko ordezkari politikoak, elkarteak eta akademiako profesionalak bildu ziren, gaur egungo egoera, jardunbide egokiak eta desgaitasunen bat duten pertsonen parte hartze eta bizitzeko aukera handiagoa izango duten hiri bat lortzeko erronkak eztabaidatzeko.

